



Euskal pertsonaia mitologikoak

— pertsonaia
mitologikoetan
oinarritutako
ipuin
sistemikoak —

NEREA MARTINEZ



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

NEREA MARTINEZ

Euskal pertsonaia mitologikoak

–pertsonaia mitologikoetan
oinarritutako ipuin sistematikoak–

Mila esker Itziar Aguirre Arrinda zurekin zure eskolan (Euskal Herriko Eskola Sistemikoa) bizitakoagatik eta bizitzen ari naizenagatik.

Mila esker Amaia, ipuinen munduan zein edozein lekutan elkarrekin bidaiatzea zoragarria da zure ondoan.

Mila esker Malu, Arrate, Amaia eta Elisabete konpartitu dugunagatik.

Mila esker familia pertsona kontzienteagoa eta zoriontsuagoa izaten laguntzeagatik.

Zuek denok maite zaituztet.

SARRERA

Ipuin bilduma honetan hainbat eta hainbat gai jorratzen dituen ipuinak daukazue. Pertsonaiak ezagunak egingo zaizkizu agian, edo ez... Mari, Tartalo, Herio, Lami, Eki eta Ilargi, eta Akerbeltzen bidez murgilduko zara heriotzean, haserrean, sendatu gabeko minetan....

Ipuin sistemikoak igorlearen barne atsedena bilatzen laguntzea du helburu. Bestalde, kontatzailearen bihotza ukitzen badu, entzulearen bihotzera iristeko aukera zabalduko da.

Zure eskura uzten ditut, maitasunez tratatu ditzazun, horrela sortuak izan dira eta.

Goza itzazu.

MARI

Gaur egun, Mari, emakume indartsu gisa ezagutzen dugu, beste jeinuen buruzagia. Naturaren indarra irudikatzen du, eta, bere botere ahaltsuarekin, naturako indarren arteko oreka, baina ez da beti horrelakoa izan... Horra iristeko hainbat eta hainbat momentu pasa izan ditu. Batzuk diotenez, oraindik izaten ditu nekeak.

Haurra zenean, neska alai eta jatorra zen, irribar errezekoa, arduratsua. Erraz moldatzen zen egunerokotasunean. Etxean zein kalean bere lekua zein zen argi zuen eta horrela adierazten zuen.

Bederatzi urte zituenean, halere, bazuen bereziki ahul sentiarazten zuen beldur bat; gaua iristen zenean, lo egin ezinik ibiltzen zen. Tripak nahasten zitzaizkion, nerbioak jota egoten zen. Askotan, afaltzeko jandakoa botatzera iristen zen.

– Zer gertatzen zaizu?- galdetzen zioten amak eta aitak.

– Ez dakit zer pasatzen zaidan. Ez dut bakarrik lo egin nahi, zuekin egin nahi dut- erantzuten zuen.

Gurasoek lasai egoteko esaten zioten, arnasa lasai- lasai hartuz pixkanaka lo hartuko zuela, ardiak kontatzeko, ahizpari eskua emateko...Bururatzen zitzaaien guztia esaten zioten bera lasaitze aldera, baina ezerk ez zion balio gure Mariri.

Egoera berrien aurrean ere urduri jartzen zen. Adibidez, sorginen bileretan. Gaua koba-zulo batean pasatzen zuten; batzuetan, Murumendin, beste batzuetan Anboton....; non/nola/zeinen ondoan lo egingo zuen jakin ezean egonezina sortzen zion. Horrelakoetan ere, tripak nahasten zitzaizkion.

– Baina, Mari, askotan joan gara irteeretara- esaten zion Amalurrak (sorginen buruzagia)- eta beti ondo moldatu zara. Bilerak oso garrantzitsuak dira. Zu haurra zara oraindik, baina zu bezalaxe, beste haurrak egotea garrantzitsua da. Gainera, badakizu, beldurra sartzen bazaizu, niregana etor zaitezkeela.

Horrek, halere, ez zuen lasaitzen. Amalurra jatorra eta atsegina zen, eta bazekien berarekin hitz egin zezakeela, baina horrek ez zion baretzen egonezina; nahiago zuen horrelako egoerak ekidin eta listo.

Presioa ere sentitzen zuen helduek berarengan itxaropen gehiegi jartzen zutela iruditzen zitzaionean. Bera ez zen gai beldurra zerk ematen zion adierazteko, baina argi zuen horrela sentitzen zela.

Behin, gauean, ohean lo hartu ezinik zegoela, beldurra zerk ematen zion pentsatu, eta zerrenda egin zuen: bakarrik gelditzea, lapurrak koba-zuloan sartzea, familiako norbait hiltzea, gaixotzea, trumoiaren hotsak entzutea... Zerrenda hori idatziz jarri zuen eta paretan itsatsi zuen bistan edukitzeko, eta zenbateraino ziren gerta zitezkeen gertaerak aztertzeko. Beldurrari aurre egin nahi zion.

Gurasoak, bitartean, egoerak sortzen zien frustrazioa alabari ez transmititzen saiatzen ziren, baina ez zuten asmatzen.

Beste batean, gaua zela, ohiko moduan ohean bueltaka zebilen bitartean, aitak eta amak bere jatorria zein zen azaldu zioteneko momentua etorri zitzaion burura:

“Bera, bere ahizparekin batera, artifizialki sortua izan zen: gurasoek ezin zuten era naturalean haurrik izan, eta horregatik joan ziren Amalurrengana laguntza eske. Amalurrek asko zekien, naturarekin bat eginda bizi zen. Harek, edabe majiko bat prestatu zien denboraldi batez har zezaten. Gero, amari obulu batzuk atera zizkion eta aitari hazia. Ilargi betea zen gau batean, elkartu zituen: 7 enbrioi izan ziren denera.

2 egun pasa eta gero, Amalurrek bereziki aukeratutako zuhaitz baten magalean elkartu ziren. 7 enbrioietatik 2 aukeratuko zituzten Mariren amaren sabelean sartzeko. Izan ere, ezin zituen denak sartu, gehiegi ziren, eta amaren eta enbrioi horien bizia arriskuan jarriko lukete denak sartu ezker. Haiei begira zeudela, baziren 2 kolore berezia zutenak. Kolore berezia zutela jabetuta, hiruren artean, gauaren isiltasuna hautsiz, kantatu egin zieten:

“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-aldaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak.”

Izarren hautsa (Xabier Lete)

Kantatu eta segituan hasi ziren 2 enbrioi horiek mugitzen; kolore ezberdina izateaz gain, mugitu egiten ziren. Haiek ere ama horren sabelean sartu nahiko balute bezala. Erabakia hartua zegoen: horiek biak izango ziren familia hori osatuko zuten harrak.

Gelditu ziren beste seiak, arazo bera zuten beste bikote batzuri ematea erabaki zuten. Horrela, beste leku batean bizitzeko aukera izango zuten.

Hori kontatu zioteneko momentua zebilkion buruan behin eta berriz; haiez gain, beste enbrioio batzuk bidean gelditu ziren... Non zeuden? Zergatik aukeratu zituzten bera eta bere ahizpa eta ez besteak? Non egongo litzateke bera besteak izan balira aukeratuak? Eta naturalki ez sortzeak ere lotsa ematen zion... Zer esan nahi zuen naturalki sortzeak? Eta horren kontrakoak?

Galdera horiek buruan zituela, oso gutxi lo egin zuen gau hartan. Hurrengo egunean, neka-neka eginik pasa zuen eguna. Ezin zuen burutik gaia kendu.

Handik egun batzuetara, aitak eta amak, afaldu eta gero berarekin hitz egin nahi zutelara esan zioten. "Ardiak kontatzeko esango didate? Ala beldurrari aurre egiteko? Ai amaa..." - pentsatu zuen.

– Mari, zurekin hitz egin nahi dugu. - esan zion aitak.

– Bai, badakigu zerbaitek kezkatzen zaituela. Ba al dago galdetu nahi diguzun zerbait?

– Ez....., bueno, bai.- erantzun zuen Mari, urduri.

– Esan, ba - esan zioten aitak eta amak.

– Ba, lotsa pixka bat ematen dit honetaz hitz egitea, baina gogoratzen zarete ahizpa eta biok nola sortu ginen kontatu zenigutela? Galdera batzuk ditut horri buruz... Nola aukeratu gintuzuen enbrioioak ginenean? Zergatik gu? Non daude besteak? Zer pasako litzateke gurekin, gu izan ez bagina aukeratuak?

Gurasoak, Mari galdera horiek egiten ausartu zela ikustean, poztu egin ziren:

– Bai, aukeratuak izan zineten, baina ez enbrioioei begira egon ginelako bakarrik - aitak-Amalurrek asko lagundu zigun: gu, naturalki, haurrak izateko gai ez ginenez, laguntza eskatu genion, gure haziak batu eta enbrioioak sortzeko. Hortik aurrera, zuek, zure ahizpa eta zu, amaren sabelean sartu eta 8 hilabete pasa zenituzten bertan, jaio zineten arte.

– Amalurri esker zaudete hemen, baina ez horri esker bakarrik, guk asko maite zaituztegunako ere bai. Amalurrek, gure ametsa egia bilakatzen lagundu zigun.

– Horretaz gain, zuk eta zure ahizpak gure etxean jaio nahi zenutela sentitu genuen gau majiko hartan. Zuk, Mari, asko duzu eskaintzeko eta munduari erakusteko, indarra duzu, maitasuna, zintzoa zara, mundua hobetu nahi duzu, eta zein leku hobea jaiotzeko, familia hau baino? Azkarra zara, eta zuk ere aukeratu gintuzun.

– Zu gabe, zure irribarrerik gabe, gure bizitzan oso garrantzitsua den zati bat faltako litzaiguke.

Guk zainduko zaitugu, babestuko zaitugu eta maiteko zaitugu zaren bezalakoak zarelako. Zuk egingo duzun ibilbidean, bide-lagun izango gaituzu; beldurra daukazunean, besarkatuko zaitugu eta indartsu sentitzen zarenean, zurekin elikatuko gara.

Hurrengo egunean, denen artean, enbrioi horiei izenak jarri zizkieten: EKI, HODEI, LAMIA, SUGAAR, ORTZI.

Harritxo batzuk jarri zituzten etxeko apal batean. Horiek ikustean, bere familiaren parte zirela sentitzen zuen.

Handik aurrera, bizitzari eusteko indarra sentitu zuen. BIZIRIK ZEGOEN! INDARBERRITUTA!

TARTALO

Hodei, haurra zenean, familian bizi zen. 2 anai arreba ziren etxean; bera gazteena zen. Arrebak Amalur izena zuen. Amalur, langilea, azkarra zen, esanekoa. Amari barantzean laguntzea zuen gogoko. Hodeiek, berriz, lan egitea ez zuen oso gustuko; aitak esaten zuenez, beti zegoen bere munduan. Ez zen erraza izaten zertan pentsatzen ari zen asmatzea.

Herri txiki bateko baserrian bizi ziren; Zubimordo herrian, hain zuzen ere. Aitak Sugaar izena zuen eta amak, aldiz, Ekiñe. Biak ziren langile finak, lanari muzin egiten ez zioten horietakoak. Haiekin, amona Josefa bizi zen. Normalean ez zuen gehiegi hitz egiten. Hodeiek hil zen aitonaaren falta sentitzen zuen susmoa zuen.

Baserrian ez zuten soberan dirurik, baina jatekorik ere ez zen normalean falta. Aste barruan, aita eta ama baserrian lanean gelditzen ziren bitartean, Amalur eta Hodei eskolara joaten ziren. Amalur primeran moldatzen zen eskolako lanetan eta denak zituen lagun bertan. Hodeiri, ordea, ez zitzaizkion gehiegi interesatzen irakasleak ematen zituen azalpenak, eta bere munduan egoten zen. Jolasgaraian, normalean, hobe moldatzen zen. Lagun batzuk bazituen eta txorakeria asko egiten zituenez, askotan haren inguruan ibiltzen ziren beste haurrak; ondo pasatzen zuten berarekin.

Egun batean, Mikelatsek, gelako indartsuenak, harri bat bota zion Mariri; Mari, txintxo-
txintxo zen eta normalean ez zen liskarretan sartzen. Hodeik ez zuen Mikelats gehiegi maite,
eta horregatik, edo Mari lirainaren atentzioa lortzeagatik, Mikelatsi honela esan zion:

– Astakirten halakoa! Baboa! Zergatik bota diok harria Mariri? Zer egin dik berak hik horrela erantzuteko?- esan zion haserre.

– Ba... ez zekiat ba!... Niri begira gelditu duk eta harria botatzeko gogo jarri zaidak!- erantzun zion Mikelatsek.

Erantzuna ez zitzaion oso logikoa iruditu Hodeiri eta zaplasteko bat eman zion Mikelatsi. Irakasleak Hodeik Mikelatsi eman zion zaplastekoa besterik ez zuen ikusi. Orduan, Hodei zigortuta utzi zuen: klaseak irauten zuen bitartean, asto belarriak jarrita egon behar zuen. Hodeik txintik esan gabe, horrela egon zen, Mikelats eta beste batzuk berari barre nola egiten zioten ikusten zuen bitartean. Gainera, asto belarriak zaharrak ziren; belarri bat ez zen tente gelditzen, eta begi artera erortzen zitzaion. Belarriak zuen hautsa zela eta, orbana gelditu zitzaion begi tartean.

Beste egun batean, eskolako bidean, Peruk eskola ondoko baserriko sagarrondoko sagar batzuk nola lapurtzen zituen ikusi zuen. Berak bazekien lapurtzea ez zegoela ondo, eta honela esan zion Peruri segituan:

– Peru, hik badakik hori lapurtzea dela. Utzi itzak sagar horiek bertan edo irakasleari esango zioat.

– Hara! Hodei lurreratzen ari duk!- erantzun zion Peruk- Isilik egon hadi! Beti bere munduan egoten duk, eta polizia ematen dik orain. Ja, ja, ja, ja....

– Ja ja ja ja ja ja ja - inguruan zeudenak barrez hasi ziren Peruren ateraldiarekin.

Hodeiri ez zitzaion asko gustatu denak barrez hastea. Izan ere, berak bazekien lapurtzea gaizki zegoela; horrela esaten zion beti aitak.

Haserrealdi horretan zegoelarik, berak ere sagar pare bat hartu zituen. Ederrak ziren, eta ezin izan zion tentazioari eutsi. Orduan ere, sagarrondo haien jabeak, baserritarrak, Hodei harrapatu zuen. A ze zaplastekoa eman zion!

– Alde egin ezak hemendik, lapur horrek! Ikusiko duk hire aitarekin hitz egiten dudanean! Etxera iristean, aitak jesukristoren errieta egin zion. Asteburuan etxetik atera gabe gelditu zen.

Horrela, eguna joan eta eguna etorri, hainbat liskarretan sartu zen Hodei. “Zer gertatzen zait?- galdetzen zion bere buruari. “Inork ez nau maite, ama ere etsita ikusten dut. Amalurrek ere ez nau maite...” Hodeiek ez zuen ezer ulertzen. Txorakeriak egiten zituenean bakarrik sentitzen zen taldearen parte, eta orduan ere, dagoeneko konturatuta zegoen, lagunek askotan barre egiten ziotela.

Azkenean, ez zen gai sentitzen ondo zegoena eta gaizki zegoena bereizteko... Gero eta isolatuago egoten hasi zen.

Gurasoak eta Amalur kezkatuta zeuden, triste ikusten zuten. Askotan haserretzen zen eta ez zien ondo erantzuten.

– Utz nazazue bakean!- esaten zuen- Ez nau inork ulertzen! Zuek maite nauzuela esaten duzue, baina nik ez dut hori horrela denik uste. Beti errieta egiten ari zarete. Hodei, egin hau; Hodei egin beste hori; Hodei ez al zara konturatzen hanka sartu duzula eta lagunik gabe geldituko zarela? EZ DUT EZER ULERTZEN!!

Eskolan, egoera ez zen hobe. Behin, euskal mitologia lantzen ari zirela, irakasleak Tartaloren ipuina kontatu zien. Tartalo, gizon zatarra zen, kobazuloan bizi zen, bakarrik, ez zuen familiarik, ez eta lagunik ere. Hurrez eta animaliaz elikatzen zen. Gainera, itsusia eta begibakarra zen.

– Hara! Guk badugu Tartalo bat gelan!- esan zuen Peruk- Irakasleak asto belarriak jartzen dizkionean, belarria erortzen zaionean, konturatu al zarete ze orbana gelditzen zaion?... Tartalo ematen du! Ja, ja, ja, ja....

– Ja, ja, ja.....- denek barre egin zuten.

Horixe bakarrik ez nuen behar- pentsatu zuen Hodeiek- orain Tartalo deitzen hasiko dira.

Hodei, baserriko ganbaran isolatuta zegoenean bakarrik hasi zen ondo sentitzen. Gurasoak eta Amalur kezkatuta zeuden bitartean.

– Hodei, nahi duzu nirekin jolastu?- esaten zion Amalurrek maiz.

– Utzi pakean, Amalur!- erantzuten zion- Amak esan dizu niregana etortzeko,ez?

Hodei, ez zen inortaz fidatzen, ezta bere etxekoez ere.

Egun batean, Hodei ganbaran zegoela, amona igo zen bertara:

– Ai ene! Zenbat denbora neraman hona igo gabe! Jesus! Hau kuxidadea dagoena hemen! Nire Joxe bizirik egongo balitz, ez litzaioke hau batere gustatuko.... Sugaarrekin hitz egin behar dut lehenbailehen!

– Kaixo, amona- esan zion Hodeiek.

– Hara! Hodei! Hemen zaude!- amonak bazekien Hodei han zegoela; bera ere kezkatuta zegoen...- Lagunduko al didazu ganbara honetako trasteak txukuntzen? Zure aita horrek ez du sekula denborarik hartzen horretarako.

– Noski, amona!- erantzun zion.

– Zu bai mutil jator eta fina!

– Ai, amona... Zu zara horrela ikusten nauen bakarra. Ez nau inork maite... Denek egiten didate barre... Gainera, ez dut sekula asmatzen... Inork ez du nirekin egon nahi.

Amona, hori entzutean, ondoan eseri zitzaion eta goxo- goxo, Hodeiren begietara begira, honela esan zion:

– Nik bai, Hodei, nik zurekin munduari bira emango nioke.

– Bai, amona, badakit zuk maite nauzula, baina beste inork ez nau maite...

– Ai, ene.... Ze antza duzun zure aitonarena. Joxek ere horrelako gauzak esaten zituen...

– A, bai? Egia esan, ez naiz berarekin gogoratzen; nik urtebete nuela hil zen.

Amonari malko txiki bat erori zitzaion masailetik. 10 urte ziren Joxe hil zenetik, baina oraindik asko sentitzen zuen haren falta. Joxe aipatu orduko malkoa ateratzen zitzaion, eta nahiago izaten zuen hari buruz ez hitz egitea.

– Negarrez zaude amona? Ez zaitut sekula negarrez ikusi...

– Bai, nik Joxe asko maite nuen, eta nahiz eta askotan haserretu berarekin, bizitza ona izan genuen. Badakizu gau batzuetan ganbara honetara igotzen ginela dantza egitera? Dantzari bikaina zen Joxe.

– A, bai?

Hodeik aitonari buruz gehiago jakin nahi zuen.

– Bai, dantzari eta bromazale aparta zen. Bere ondoan zegoena ez zen aspertzen! Hura umorea zuena... Zenbat barre egin genuen sukaldeko mahaiaren bueltan...

– Nire inguruan ere barre asko egoten da, amona, baina ez nirekin barre egiten dutelako, nitaz baizik.

– Jesus! Joxe ematen duzu! Horixe bera esaten zuen berak ezagutu nuenean. Eskolan ezagutu nuen, eta egia esan nahiko ganberroa zen.... Batzuetan arazoak izaten zituen eta maiz jartzen zizkion irakasleak asto- belarriak. Bolada txarra ere pasa zuen lagunekin; zure adina zuenean izango zen... Ez zen giro beraren ondoan! Asko haserretzen zen eta oso zaila egiten zitzaigun bere ondoan egotea.

– Eta zer gertatu zen?- galdetu zion Hodeik gaiarekin interes handia erakutsiz.

Lehenengo aldia zen bere aitonaren istorio hori entzun zuena. Harrituta zegoen.

– Ni, oso maiteminduta nengoen berarekin, baina ez nintzen ausartzen ezer esaten. Halere, kasurik egiten ez zidala ikusita, oso kuttuna nuen harritxo batekin lepokoa egin nion. Notatxo bat ere idatzi nion, paper polit batean bildu, eta eskolako bere mahaian utzi nion.

– Amona! Hori egin zenuen?- erantzun zion harrituta Hodeik- Ja, ja, ja.... Eta zer idatzi zenion notatxo hartan?

– Ba hauxe: Kaixo Joxe. Josefa naiz, Joxpi. Azkenaldian haserre zabiltzala konturatu naiz. Opari hau egin nahi dizut, bakarrik ez zaudela kontura zaitezen. Harri hau oso berezia da niretzat. Kobazulo batean aurkitu nuen eta harrezkero beti eramaten dut mantalean. Niri nire sena identifikatzen lagundu dit. Edozein gertaera dela eta, harritxoa ukitu eta zer egin/esan nahi dudan pentsatzen lagundu dit. Orain, zuk nik baino gehiago behar duzula iruditzen zait. Horregatik oparitu nahi dizut zuri

– Ze polita amona!- Hodei erabat hunkituta zegoen. Berari ere malkoa atera zitzaion.

– Hodei, aitonak beti jantzita eramaten zuen lepokoa. Hil baino lehen, niri eman zidan eta orain nik zuri eman nahiko nizuke.

Hodeik amona besarkatu zuen negar- zotinka. Bitartean amonak hauxe esan zion: Lepokoa zure IPARRORRATZA izan daiteke. Nola jokatu ez dakizunean, harria ukitu eta hartu minutu pare bat ezer egin aurretik. Kontatuko didazu nola doakizun hemendik aurrera.

Hodeik pozik hartu zuen amonaren oparia. Aitonarena izan zen! Hark jantzi zuen urteetan orain berak lepoan zintzilik zuen harria! Mirestuta zegoen.

Handik aurrera, Hodei, erabat aldatu zen. Barre egiten ziotela sentitzen zuenean, harria ukitu eta arnasa hartzten zuen. Orduan erabakitzen zuen egoerari nola egin aurre. Batzuetan, sorpresa batzuk ere hartu zituen; gertatzen zen guztiak ez zuen beti berarekin zerikusirik. Gainera, ez zen dagoeneko beste inoren arduradun sentitzen. Bakoitzak, bere bidea egiten duela ulertu zuen. Ez zuen beti asmatzen, baina bere barruan indartuta sentitzen zen.

Esaten dutenez, amona hil zen arte, baserriko ganbaran entzun ziren tarteka barrak eta algarak, musika doinuarekin. Geroago, Marirekin ere joaten omen zen...

HERIO

Ikaragarri gustatzen zaizkit mitologiarekin zerikusia duten elezaharrak. Zaharrak dira, eta gainera belaunaldiz- belaunaldi kontatu izan dira baserrietako eta etxeetako sukaldeetan. Hori gutxi ez balitz, oraindik Marik bere indarra, zintzotasuna, justizia transmititzen digu; Sorginek, aldiz, festarako gogoak, edabe majikoak sukaldatzeko grina; Sugaarek indarra, autoritatea; Tartalok... Zer etortzen zaigu Tartalo irudikatzean? Agian, zatartasuna, norberaren baitan dauden haserreak.... Eta denek, hau da, pertsonai eta elezahar guztiek naturarekin eta gure barneko emozio/ sentipenekin konektatzen gaituzte. Horregatik ote dira, agian, hain iraunkorrak? Sentipenek garairik ez dutelako?; beldurra, beti beldurra izan delako; maitasuna, maitasun etab...

Bada, halere, mitologiako jeinu bat izugarri kostatzen zaidana digeritzea: Herio. Tartalo baina itsusiagoa da... Izena entzun orduko, barruak nahasten zaizkit, oiloipurdia jartzen zait, eztarria isten zait ia ahotsik gabe gelditzeraino.... Herio, heriotzaren jeinua omen da. Nola liteke, heriotzak bere jeinua izatea? Zeinen buruan sartzen da hain itsusia den gertaera bat irudikatzen duen pertsonak edo itzalak jeinuaren maila izatea?

Horrek guztiak heriotzari diodan beldurra sentiarazten dit.

Zer da heriotza? Bihotza gelditzen den momentua? Orduan, ez gara guk maite dugun jendearekin hitz egiteko gai izango; ez gara bakarrik sentituko; ez dugu poza sentituko.... Ez dugu ezer sentituko...

Batzuek diotenez, guk utzitako arrastoa hor egongo da. Horrela al da?; Gu hiltzean, gure pasadizoren bat edo kontatzen dutenean, edo guri gazta- tarta zenbat gustatzen zitzaigun gogoratzen dutenean. Hau da, gutaz inork hitz egiten duenean azaltzen al da gure arrastoa? Hori al da gure arrastoa?

Eta guk ezagutu ditugun edo ezagutu ez ditugun gure familiartekoek, lagunek utzi diguten arrastoak zer eragin du guregan? Nik ez nituen aitona amonak ia ezagutu, baina ikaragarriko antza omen dut amona Remediosena, eta amona Joxepak abilezia ikaragarria omen zuen edozein jakirekin plater goxoak egiteko eta niri sukaldatzea asko gustatzen zait.... Nire anai-arrebak hil zirenean utzi zuten hutsunea ere sentitu dut nire gurasoen begiradetan, haietaz gehiegi hitz egiteko gai izan ez diren arren; ez nituen ezagutu, baina hutsunea sentitu, sentitu dut. Hori ere arrastoa da?

Eta... Ez al gara baita ere pixkanaka hiltzen bizitzen ari garen heinean? Momentuak pasa ahala, momentu horiek ez dira bueltatuko; hori ere heriotza dela ere entzun izan diot adituren bati...

Haurra nintzela, egun batean, andereño Bixenek heriotzari buruz hitz egin zigun, egurrezko zorua zuen gela hartan, hainbeste goxatzen zuen leku hartan. Behin heriotzari buruz zer genekien galdetu zigun. Heriori buruzko istorio bat ere kontatu zigun:

Istorio horretan, ikazkin txiro bat eta Herio dira protagonistak. Dirudienez, Heriok denekin berdin jokatzeko du berarekin eramateko ordua iristen denean; aberats zein txiro eramaten ditu beste mundura, heriotzaren mundura, alegia. Pasarte hauek gogoratzen ditut:

Gaixo bat ohean dagoenean, ohe-buruan ikusten banauzu, ziur egon hilko dela, baina oinetan ikusten banauzu, eta edozein sendagai ematen badiozu, ez da hilko....” (Heriok esana)

... pertsona guztiarekin jokabide bera zuela erantzun zion. Kapa beltzarekin inguratu, eta betiko eramanean zuen ikazkin gizagaixoa.

Bixenek, ordea, ez zigun kontatu zer istorio zuen heriotzarekin. Ezagutu al zuen Herio ikusi zuen inor? Izango zuen hark ere amona Joxeparen parekorik... Beldurra ematen al zion heriotzak? Ez nintzen galdetzen ausartu.

Orduan, artean ez nekien nire anai- arrebak, Jose Mari eta Mari Jose, bizi izan zirenik ere. Batzuk gai izan ziren hildako aiton-amonei buruz hitz egiteko eta, haien harira, pasadizo pila bat kontatu zituzten beste batzuek. Gelako horma batean marrazki bat egin eta heriotzari buruz sentitzen genuen edozer jartzera gonbidatu gintuen Bixenek. Orduan, ni ez nintzen ezer esateko edo marrazteko gai izan, are gutxiago ezer idazteko. Nik gaiarekiko sentitzen nuen hutsunearekin irudikatu nuen paretan hartako nire lekua.

Ordu osoa paper zuri hari begira egon eta gero, Bixenek papera horrela jartzeko esan zidan:

– Lasai, maitea. - esan zidan- nik ere ez dakit ezer marrazteko gai izango nintzatekeen. Orria horrela jarriko dugu paretan eta egunen batean, zerbait idatzi nahi baduzu, edo marraztu nahi baduzu, egin.

Ni ikasle txintxoan nintzen eta, Bixeni huts ez egitearren edo, zerbait idatzi edo marraztu nahi nuen, baina eguna joan eta eguna etorri, ez nintzen gai sentitu ezer egiteko paper txuri horretan.

– Garrantzitsuena da zuk zerbait egiteko gogoala beharra sentitzen duzunean egitea da. Ez zaude behartuta ezer egitera.

Alde batetik, berak esandakoak lasaitzen ninduen, behartuta ez egoteak, alegia, baina, bestetik, besteen marrazkiak hor zeuden eta nik nire hutsik utzi nuela gogorarazten zidaten.

Andoni ere ni bezala zegoen; berak ere paper txuria jarri zuen. Bata bestearen ondoan jarri genituen, elkarri babesaren eman nahian edo. Beste marrazkietan, batzuetan, izen batzuk agertzen ziren, besteetan mamu itxurako pertsonaia itsusi batzuk, zenbaitetan hilerriak, eskeletoak.....

Nik zerbait berezia egin nahi nuen, Bixen txundituko zuen zerbait, baina nire marrazkiak koloretsuak izan ohi ziren, eta, heriotza marrazki koloretsuekin irudikatzea errespetu falta irudituko zitzaizkidan edo, ez nintzen ausartzen ezer egitera.

Egunak joan, egunak etorri, kontu hau ahazten joan zitzaidan. Horretan ez pentsatzea hobe zela esan zidan amak nire kezka azaldu nionean:

– Heriotzari buruzko marrazkia egiteko eskatu dizuela Bixenek? Hori burutazioa hori! - esan zidan amak.

– Ama, baina zer da heriotza?- galdetu nion.

– Ba..... heriotza..... hiltzean zerura joaten gara eta han egindako pekatu guztiak barkatuko dizkigute..... - erantzun zidan urduri.

Ama kristaua da eta, dirudienez, sinismen horrek balio dio. Agian, pekatuak ez duelako izango zela pentsatu nuen, baina nik banituen pekatutxo batzuk: Leireren boligrafo polit hura lapurtu nuenekoa, Begoñaren edertasunak inbidia ikaragarria ematen zidan....

Kontuak kontu, amarekin horri buruz gehiago ez hitz egitea erabaki nuen. Alde batetik, ez zidan asko balio haren erantzunak: zerura joaten ginela? eta ama urduri ikusten ez nengoen ohituta. Beti izan ohi zuen denetarako erantzuna. Aitarekin ez nintzen ausartu ere egin. Ziur aski, builaren bat botako zidan, horiek txorakeriak zirela esanez... Beraz, gaia baztertu egin nuen... ekainera arte.

Egun hartan, ez zuen, ba, Andonik asko maite zuen zaldi baten marrazkia egin bere orri txurian? Andonik, gainera, oso ondo marrazten zuen... Dirudienez, zaldi hori, "Txuri", aurreko egunean hil egin zen. Triste zegoen eta horrek asko hunkitu ninduen; hura triste ikusten ere ez nengoen oso ohituta. Marrazkia ikaragarri gustatu zitzaidala esan nionean, esan zidan nahi baldin banuen, niretzat ere egingo zuela marrazki bat. Esan eta egin, hurrengo egunean Txuriren beste marrazki bat ekarri zidan, sinadura eta guzti! Askok eskertu nion oparia: momentu hartan ez zidan nire marrazkia egiteko balio izan, baina altxorra bezala gorde nuen.

Orduan ez nekien handik urte batzuetara, Andoni, zu ere Heriorekin bizitzera joango zinela, isil-isilik; bihotzak ez zizun abisatu egun hotz hartan, bat- batean gelditu egingo zela. Denborarik eman al zizun Herioren begiak nolakoak diren ikusteko?

Ekaineko azken egunean, ohikoa zen moduan, egindako lan guztiak grapatu genituen etxera eramateko. Heriotzari buruzko marrazkia ere eraman zuten denek. Nik negar egin nuen egun hartan, ez nintzelako gai izan Bixenek eskatutakoa betetzeko.

Bixenek, ordea, niregana gerturatzean, horrela esan zidan:

– Zure orri txuria betetzeko denbora asko duzu, bizitza osoa. Gorde orria, eta, zerbait idazteko edo marrazteko gogoia daukazunean, egin.

Bixenek esandakoa ez nuen ondo ulertu, baina sakona zen itxura hartu nion. Hark ere bere orria txuria zuen sentrazioa eman zidan. Agian, hori esan balit..., berak ere bere orria betetzen jarraitzen zuela...

Nik nire orria Txuriren marrazkiarekin batera grapatu nuen eta etxera eraman nituen.

Orain, urte batzuk pasa ondoren, nire alabak dira heriotzarekin kezkatuta dabiltzanak...

– Nora goaz hiltzen garenean? Nondik gatoz?- galdetzen didate.

Horrelakoetan, erantzunik gabe gelditu ohi izan naiz. Nire amak, sikiera, zerura joaten garela sinisten du, baina zer egin dezakegu horrek ez digunean balio? Zer konta diezaiekegu?

Budista edo sasi- budista izatea ere pasa zait burutik. Sasi diot, ez dudalako nire burua tunika laranja batekin irudikatzen, eta ile gutxi izan arren, ez nuke gutxi hori galdu nahi. Gainera, ez zait iruditzen meditazio ordu luze horiek ondo eramango nituzkeenik. Halere, ikaragarri erakartzen nau berriro biziko garela pentsatzeak. Gainera, nahiz eta oraindik asko bizitzeko asmoa dudan, badakit egin nahi dudan guztia egiteko denborarik ez dudala izango. Dagoeneko 46 urte ditut eta oraindik aktorea, sukaldaria, idazlea, tabernaria..... izan nahi dut, eta bizitza honetan ez dut denborarik izango. Ez dakit lehen hemen egon naizen edo hemendik aurrera hemen egongo naizen, baina hori inoiz deskubritzen badut, deskubritu artean, bizitzari eusteko hautua egin dut, momentu txikiak, egunerokoak bizitzeko hautua, alegia.

Bitartean, Herio, zuri nire aitona- amonen, anaiaren eta ahizparen, Andoniren eta Txuriren begiak jarriko dizkizut. Zuek denok nire bizitzan arrastoa utzi zenutelako, zuek nire bihotza ukitu zenutelako, eta zuei esker ere bizitza gozatzeko gogoia pizten zaidalako

LAMI

Orain dela 150 urte, bazen Gipuzkoan barrena beste asko bezalako herri txiki bat: Badalegi herria, hain zuzen ere.

Herria txikia zen, 200 bat biztanle bizi ziren bertan. Gehienak nekazariak ziren; landatzen zituzten barazkiak eta zaintzen zituzten animaliak janaz bizi ziren. Herrian ez zen ezer askorik gertatzen normalean. Neguan, herriko haurrak goizero eskolara joaten ziren, baina 10 urte bete orduko, kontuak egiten jakin ala ez, irakurtzen eta idazten jakin ala ez, eskolako lanak alde batera uzten zituzten. Orduan, baserrietan lana egiteari ekiten zioten buru- belarri. Igandeetan, eguraldiak laguntzen zuen egunetan behintzat, haurrak basoan zegoen errekatxo batera joaten ziren jolastera. Ni bertan bizi nintzen, eta hango haurrak bezala, errekan asko gozaten nuen.

Garai hartan, ordea, herrian mugimendu asko egoten hasi zen. Familia batzuk, gosea zela medio, hiri handietara joaten hasi ziren. Horietan lana omen zegoen; fabrika handietan lanari muzin egiten ez zioten langileak behar zituzten, eta esaten zutenez, bizilekua ere eskaintzen zuten.

Aitak eta amak ez zuten oso argi ikusi inora joatearena, baina etxean asko ginenez - 8 anai-arreba ginen denera- zerbait pentsatzeko momentua iritsi zen. Afaltzen ari ginen gau batean, gu ere hirira joateko erabakia hartua zutela esan ziguten.

– Ez dago nahikoa lanik hemen gu denok bizitzeko. Hirian ondo biziko gara.- horretaz ziur baleude bezala hitz egin ziguten.

Guk ez genuen adorerik izan ezer esateko. Haiek esaten zutena familiarentzat hoberena izango zelakoan, txintik esan gabe, onartu genuen erabakia.

Negua pasa zen eta etxeko karroan sartuta abiatu ginen denok hirira. Zein hiri zen ere ez dut gogoan; izan ere, nik, nire anai arrebak bezala, ez nuen hiririk ezagutzen... Bueltatuko al ginen inoiz gure etxera?

Joan aurretik, amak gure gauzak kaxatan sartzeko esan zigun. Bakoitzari kaxa bat eman zigun eta han sartzen ez zena baserrian geldituko zen. Nik, nire 2 soinekoak, lastoarekin egindako panpina eta amonak eman zidan orrazi zahar horia sartu nituen. Lekua soberan nuenez, maindire batzuk sartu zituen amak nire kaxan.

Bidean ginela, aita eta ama urduri zeudela nabaritu genuen, baina inor ez ginen ezer esatera ausartu. Gu ere urduri geunden; nolakoa ote zen hiriko bizimodua? Izango al zen han errekarik?

Eskolara ez genuela joan beharko argi genuen; ni nintzen etxean gazteena, eta dagoeneko 11 urte nituen.

Bidaia luzea eta neketsua izan zen: 10 egun, 9 gau pasa genituen karro hartan. Halere, ez zen dena nekea izan bidai hartan. Aita oso kantaria zen eta bidaia atseginago egite aldera abesti asko kantatu zizkigun, eta baita guk ere berarekin:

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean,
etxe ttipitto, aintzin zuri bat
lau haitzondoren erdian,
zakur zuri bat atean,
iturritto bat aldean?
Han bizi naiz ni bakean

Ama isilik gelditzen zen, baina irrifar txikia ikusi nion tarteka...

Hirira iritsi ginenean, oso arrotz sentitu ginen: grisa zen oso, ke asko zegoen, errekarik ez zen ikusten, bistan behintzat. Etxe handi bat ikusi genuen. Etxe hartan tximini handi bat zegoen. Geroago jakin genuen hura izango zela denbora gehien pasatuko genuen lekua: fabrika.

Aita, orduan, inoiz ez bezala, serio jarri zen eta inoiz entzun dudan bertsorik hunkigarriena kantatu zigun:

Gure bizitza aldatuko da
hala ematen du antza
zer esaten dizuedan entzun
altxatu denok bihotza
nahiz eta orain ez iruditu
hemen dago gure ametsa
ez dezagun guk mesedez galdu
bizitzeko esperantza.

Amari malko bat atera zitzaion, baina segituan lehortu zuen:

– Tira, Joakin! Utz itzazu bertsoak alde batera, eta goazen hara. Han dagoen gizonak hemengo nagusia dirudi, eta agian nora joan behar dugun esango digu.

Denok karrotik jaitsi, eta, aitaren atzean jarrita, bere pausoak jarraitu genituen amak esandako gizona zegoen lekuraino. Gizona, mahai baten atzean zegoen, eserita. Haren parean, gizon askoko ilara luzea zegoen. Aitak, gu bazter batean esertzeko agindu zigun, bera ilaran jartzen zen bitartean. Ama gurekin eseri zen; gazta eta ogia eman zigun jateko.

Ilara nahiko arin zihoan. Guk amak emandako janaria bukatu orduko iritsi zen aita gizon harengana. Ez zuen denbora gehiegi pasa harekin hizketan. Guregana irribarretsu etorri zen:

– Bueno, familia. Bihartik aurrera lanean hasiko naiz, fabrikan. Lo egiteko gelatxo bat utziko digutela esan dit. 410.gela izango da gurea. Ate hartatik sartu, eta laugarren solairura joan behar dugu. Goazen!

Bere atzetik joan ginen denok. Karroko gauzak hartu, eta bakoitza bere kaxa eskuetan genuela igo genituen leku hartako eskailerak.

– 410.gela?- pentsatu nuen. Horrek esan nahi zuen jende asko biziko ginela han...

Gelara sartu, eta hautsaz gain, sukaldatzeko mahai txiki bat zuela ikusi zuen amak lehenengo. Aita segituan hasi zen kaxetako gauzak armairu txiki hartan sartzen. Amak, gero, gure gauzak uzteko lekua bilatzeko agindu zigun. Trapua hartu, eta garbitzen hasi zen. Nik pixagurea nuen, baina ez nuen komunikatu ikusi eta pixari eutsi nion. Gauzak uzteko lekurik ez genuen topatu, eta kaxak ireki eta bertan utzi genituen. Amak nirean sartutako maindireak lurtean zeuden koltxoietan jarri genituen. Aita eta amarentzat ohe handi bat zegoen. Haiekin lo egiten utziko zidaten esperantza piztu zitzaidan. Leher eginda geundenez, segituan hartu genuen lo.

Hurrengo goizean, gu esnatzerako, aita lanera joana zen. Ni amaren ondoan esnatu nintzen, maindireak bustita. Amak muxu eman zidan, eta lasai egoteko esan zidan.

Ogi pixka bat gosalduta eta gero, amari gela hotz hura txukuntzen lagundu genion. Arratsaldea iritsi zenerako, gela txukun jarri genuen, gure egin genuen.

Gauean, aita iritsi zen:

– Zer moduz, aita?- galdetu genion- Zer moduzko lana da?

– Oso ondo moldatu naiz. Gainera, lagun bat egin dut, euskalduna, Pedro izena du. 325. gelan bizi da. 6 alaba ditu. Gero, afaldutakoan, zuekin bere gelara joateko esan dit.

Zer berezitasun zuen euskalduna izateak? Ez al ginen denok euskaldunak?- pentsatu nuen. Geroago jakin nuen denok ez ginela euskaldunak izango joan ginen hiri hartan. Espainiako leku askotatik joanak ziren hara gu bezala lanera.

Aita nekatuta zegoela nabaria zen. Ez dakit nondik ateratzen zuen indarra! Harekin, gauzak erraz joaten ziren...

Pedrok urte bete zeraman leku hartan bizitzen. Esan zigunez, bizimodu gogorra zen, lana ordu askoz egin behar izaten zen. Haren emazteak ere lana egiten zuen fabrian, eta bien artean irabazten zuten diruari esker bizi ziren. Alabak gutxi ikusten zituzten, baina, gutxienez, jatekorik ez zitzaien falta. Aitak, hurrengo egunean, amarentzat lana eskatuko zuela esan zuen. Eta guk? Zer egin behar genuen guk bitartean? Han, 14 urtetik aurrera fabrian lana egiten zutela esan zigun Pedrok. Adin horretatik beheragokoentzat fabrikako nagusiak eskolara joateko aukera uzten zuela esan zigun.

– Aukera?- pentsatu nuen.

Beraz, Marik eta nik, eskolara joan beharko genuen! Ez zigun grazia handiegirik egin. Gure herrian eskolan izan genuen esperientzia ez zen ona izan. Hobe esanda, tamalgarria izan zen. On Eduardo izan genuen irakasle. Nire ahizpa Pilarren titiak zituen gustuko eta ahal zuen guztietan ukitzen zion ipurdia. Denok konturatzen ginen horretaz, baina beldurragatik isildu egiten ginen. Pilar gaixoak gorriak pasa zituen On Eduardorekin. Besteok ere ez gintuen ondo tratatzen. Ikaragarritzko buiak egiten zizkigun. Gainera, Mari eta ni ez ginen onak, ez irakurtzen, ezta kontuak egiten ere. Hori guztia aita eta amari kontatzeko adorerik ere ez genuen izan. Normala zela iruditzen zitzaigun, besterik ez genuen eta ezagutu...

Aita eta ama pozik zeuden gu eskolara joango ginelako. Haiek ez zuten ikasteko aukerarik izan, eta guk behintzat idazten eta irakurtzen ikasiz gero, agian, irakasle izatera iritsiko ginen:

– Irakasle gu? On Eduardo bezalako irakasle gu?- pentsatu genuen.

Handik aste batera hasi ginen eskolara joaten. Etxe handi hartako beheko solairuan zegoen gela batera joateko esan zigun Pedrok. Haren alaba gazteena, Lutxi, gurekin joango zen. Gela hartan sartu orduko, arreta eman zigun lehenengo gauza irakaslearen mahaiaren gainean zegoen lore sorta izan zen. Ez ginen ia sartzera ausartzen eta ate ondoan gelditu ginen ahizpa eta biok lurrera begiratuz. Ni, zeharka, loreei begira gelditu nintzen. Halako batean, presaka, andereño eder bat sartu zen gelan. Gaztea zen, eta aurpegian irribarre ederra zuen, xaboi goxoaren usaina zuen.

– Kaixo!- esan zuen- Egunon guztiori! Hau egun ederra dagoena gaur. Aspaldiko partez eguzkia atera da! Konturatu al zarete?

Niri emakume hori burutik ondo ez zegoela iruditu zitzaidan; egun ederra zela? Zerk ematen zion barre egiteko gogoia... Nor zen?

– Hara! Eta zuek zein zarete?- galdetu zigun ahizpari eta niri.

– Ba.... Gu..... Zera..... Mari eta Lami gara gu, ahizpak gara- erantzun zuen Marik.

Ni isil- isilik gelditu nintzen, loreei begira oraindik.

– Ba, ongi-etorriak Mari eta Lami. Ni Ane naiz, zuen andereñoa. Asko pozten naiz ikasle berriak izateaz. Hor dauden mahaitxo horietan eser zaitezkete.- esan zigun irribarrea ahoan zuela.

– Mari, loreak gustatzen al zaizkizu?- galdetu zidan.

Urduri jarri nintzen niri galdezka ari zela ikustean. Zer erantzun behar nuen? Baietz? Ezetz? Nahiago nukeen momentu hartan ikusezina izan banintz...

– ez dakit.....- erantzun nion.

– Loreei begira gelditu zarela konturatu naiz eta horregatik galdetu dizut. Niri ikaragarri gustatzen zaizkit. Hemen ez da erraza loreak lortzea, baina ahal dudanean behintzat, saiatzen naiz hona ekartzen. Gelari goxotasuna ematen diotela iruditzen zait. Zuri?

– Eee.... Bai, noski.- erantzun nion

Asko hitz egiten zuen emakume hark. Ahaztuta nuen haren izena... Loreak gustuko zituela? Bueno, baserrian geundenean, sukaldean zegoen pitxar zahar batean nik ere jartzen nituen bidean jasotzen nituen loreak. Gustatzen zitzaidan, noski! Baina ez nuen hori egiten zuen beste inor ezagutzen.

Emakume hark, esandako lekuan eseri ginenean, kontatzeko ezer al genuen galdetu zigun. Zer esan nahi zuen horrekin? Mari eta ni begiak zabal- zabal eginda isilik gelditu ginen. Orduan, Lutxik hitz egin zuen. Nik pixagura nuen, baina oraingoan ere ez nintzen ausartu komunera joateko baimena eskatzen.

– Nik bai! Atzo lagun berriak egin nituen: Mari, Lami eta haien familia. Etxera etorri ziren afaldu eta gero. Nire familiarekin hona etorri nintzen egunarekin gogoratu nintzen. Hain sentitzen nintzen bakarrik...

– Bai, Lutxi. Ni ere horrekin gogoratzen ari naiz oraintxe bertan... Zortea izan dute zurekin topo egitean.- erantzun zuen andereñoak.

Gutaz hitz egin behar al dugu orain? pentsatu nuen. Ez nuen lehenengo egunean nabarmentzeko gogorik. Pixak alde egingo zidan beldur nintzen.

– Inork ba du horren inguruan ezer esateko?- galdetu zuen.

– Ba, nik dagoeneko ahaztu dut nolakoa zen nire etxea, nire herria.- esan zuen aurrean esertzen zen beste batek.

Nik ez - pentsatu nuen. Oso fresko nuen amaren malkoa, baserriko ataria, errekatxoa...

– Ahaztuko ez zenuen, ba!- esan zuen beste batek- Tonto hutsa zea ta!

– Ja, ja, ja, ja....- egin zuten batzuek.

Orduan, nire soinekoa bustitzen ari zela somatu nuen.

Pixa egin dut, soinean. Ai ene! Zigortuta egon beharko dut!

Mari segituan konturatu zen. Bera ere gorri- gorri jarri zen. Soinean zuen txaketa kendu zuen eta nire gainean jarri zuen, inor konturatu baino lehen. Nik handik desagertu egin nahi nuen! Aita eta amarekin egon nahi nuen...

Orduan, andereñoak etorri ginen egunean sentitu genuena marrazteko esan zigun. Marrazkiekin horma- irudia egingo genuen.

Marraztu? Zer zen hori? Nik ez nuen sekula marrazkirik egin. Txikia nintzenean, bateren bat baina oso gutxi... Mari eta ni geldi- geldi gelditu ginen; beste guztiak segituan hasi ziren marrazten. Gu geldi eta mutu geundela ikustean, andereño hura guregana gerturatu zen:

– Ez al zaizue marraztea gustatzen?- galdetu zigun.

– Ba.... Ez dakit... Zer egin behar dugu? Zer marraztu behar dugu?- galdetu zion Marik.

Ni zaplastekoaren zarataren zain gelditu nintzen. Nola ausartu zen Mari ezer galdetzen?

– Begira, kontua ez da zerbait zehatza egitea. Margoak hartu eta nahi duzuna egin dezakezue. Agian, hona etortzen ari zineten momenturen bateko zerbait marraz dezakezue...- esan zigun irribarretsu.

Ni oso urduri nengoen, pixa usaina nabari nuen eta ez nion ezer ulertzen emakume hari.

– Lami, nahi duzu nirekin pixka bat kanpora atera? Zurekin hitz egin nahiko nuke. - esan zidan niri.

Nik ez nuen aukerarik altxatu nahi. Denak konturaturako ziren soinean pixka egin nuela...

Orduan, andereñoak Mariri belarrira zerbait esan zion; begiarekin keinua egin ziola ere ikusi nuen... Marik, andereñoarekin lasai joateko esan zidan belarrira, berak lehortuko zuela aukerarik inor konturatu baino lehen.

Andereñoak eskua eman, eta berarekin atera nintzen gelatik. Komunera eramanez ninduen eta han goxo- goxo hitz egin zidan:

– Lami, zer duzu?

– Ez dakit zer erantzutea nahi duzun...

– Ba, sentitzen duzuna.

Zer demontre esan nahi zuen? Bere begiradarekin ez nintzen eroso sentitzen; bere begiradarekin barruak ikusiko zizkidala sentitzen nuen, baina nola esan hori?

– Lasai, Lami. Orain ez esan nahi ez duzun ezer.- esan zidan- Nik ere badakit zer den zer esan nahi dudanez ezin asmatu ibiltzea.

Ez dakizula? Orain ez zara, ba, asko isiltzen...

– Badakizu nola iritsi nintzen ni hona?- galdetu zidan.

– Ba, ez....- erantzun nion.

– Nire amonarekin etorri nintzen. Ni ere, zu bezala, herri txiki batekoa naiz, Bazanlegikoa. Nire gurasoak gaixotu, eta hil zirenean, orain dela 10 urte, joan nintzen amonarekin Madrilera. Asko maite nuen amona; zaindu eta ikastera animatu ninduen: “Ikasten baduzu, bizitzan lanbide duina izateko aukera izango duzu” esaten zidan maiz. Horrela, irakasle izateko ikasi nuen, nahiz eta haurra nintzenean, ez oso ona izan irakurtzen eta idazten. Amona iaz hil zen. Hura hildakoan etorri nintzen hona, zu bezalako haurrekin nik ikasitakoa zuekin partekatzerara. Niretzat garrantzitsuenak zuek ondo sentitzea da, eta horregatik jakin nahi dut zuek nola sentitzen zareten.- esan zidan.

Hori izan zen aurpegira begiratzen ausartu nintzen lehen aldia. Nola sentitzen nintzen bazekiela sentitu nuen, baina ez nintzen ezer esatera ausartu orduan ere.

– Orain, nahi baduzu, soineko hau jantzi dezakezu. Zure adina nuenekoa da. Hemen gordetzen dut “larrialdietarako”.- esan zidan keinu bat eginez.

Pixa soinean egin nuela bazekien zen orduan... Larrialdia deitu zion nire pixari...

– Eskerrik asko- esan nion eta jaboï usai goxoa zuen soineko hura jantzi nuen.

– Bukatzen duzunean, etorri gelara, zure marrazkia ikusteko gogoï dut eta.

Gelara sartu nintzenean, ahizpa marrazki bat egiten hasia zela ikusi nuen: gure baserria zela iruditu zitzaidan. Zer egingo nuen pentsatzen hasi nintzen... Halako batean, arkatza hartu, eta amonak emandako orrazia marraztea pentsatu nuen. Pentsatu eta egin! Ez galdetu zergatik baina huraxe egin nuen.

Denok marrazkiak bukatu genituenean, Anek marrazki guztiak bildu zituen. Gero, denoi borobilean jarrita zutik jartzeko esan zigun. Borobilaren erdian marrazkiak jarri zituen: Ondoren, marrazkien inguruan poliki- poliki buelta batzuk eman genituen. Bukatzeko, borobilean, lurrean eserita, inork ezer esan nahi ote zuen galdetu zigun.

Nire ezker aldean zegoenak faltan botatzen zuen mendia marraztu zuela esan zuen; Mariren ondoan zegoenak baserrian utzi zuen txakurra marraztu zuen, hilda zegoen ala ez ez omen zekien eta tristura sartzen omen zitzaion; Marik esan zuen baserria marraztu zuela, bere etxea ez ahazteko. Nik ez nuen ezer esan, baina amonak emandako orrazia asko maite nuela esango nukeen, adorerik bilatu izan banu.

Gure etxea izango zen gelara iritsi ginenean, ez zegoen inor gure zain:

– Lanera joango ziren denak- esan zidan Marik.

– Bai, ziur aski.- erantzun nion.

Nik amonaren orrazia hartu, eta ilea orrazten egon nintzen ez dakit zenbat denbora. Egun arraroa izan zen hura: Anerekin izandako elkarriketa nuen gogoan, hark utzitako soineko garbia usaintzen nuen bitartean. Badalegiko errekatxoarekin ere gogoratu nintzen. Hurrengo egunean, Lutxiri, han errekatxorik bazegoen galdetuko nion.

Aita, ama eta anai arrebak etorri ziren, azkenean. Nekatuta zeudela nabaria zen. Anai arrebak oihal handiak plantxatzen egon ziren amarekin batera. Ez nekien oraindik aitaren lana zein zen... Errudun sentitu nintzen: gu marrazkiak egiten ibili ginen bitartean, haiek lan eta lan aritu ziren.

Egunak joan, egunak etorri, pixkanaka leku hartara egokitzen joan ginen. Ane atsegina zen, egunero galdetzen zidan zer moduz nengoen. Nik ondo nengoela erantzuten nion beti. Hori entzun nahi zuela zirudien.

Lagunik ez genuen egin. Lutxi zen tarteka zerbait esatera hurbiltzen zitzaigun bakarra. Batzuk gaztelera hitz egiten zuten, eta ez genien ulertzen. Esan zidan han errekarik ez zegoela, baina arropa garbitzeko ibiltzen zuten iturrian iluntzean haurrak elkartzen omen ziren; nahi bagenuen, joateko. Beste inork ezer esaten ez zigutenez, guk, sumatzen genuen ongi- etorriak izango ez ginela, eta ez ginen joaten. Ez gintuzten gaizki tratatzen edo iraintzen, baina Anek lan-taldeak egiten zituenean, ez gintuen inork aukeratzen, eta jolastera ere ez zen inor guregana etortzen.

Iluntzetan, amonak emandako orraziarekin ilea orrazten egoten nintzen. Orduan, berarekin pentsatzen nuen, eta Badalegiko errekatxoarekin, eta han utzi nituen lagunekin...

Hilabete pasa ondoren, Anek Marirekin eta nirekin hitz egin nahi zuela esan zigun. Egun hartako klasea amaitutakoan, haren mahaira inguratu ginen. Irakurtzen eta idazten ez genekien oraindik, eta asko nabarmentzen ginen besteen ondoan. Horretaz hitz egin nahi ote zuen?

– Mari, Lami, badakizue zer esan nahi dizuedan?

– Ba, ez, baina pentsatzen dut gehiago ikasi behar dugula izango dela- esan zuen Marik- oraindik ez dakigu irakurtzen eta idazten...

– Ba, ez- erantzun zigun- zuen herriaren deskribapena egiteko eskatu nahi dizuet, gero, zuen ikaskideei azaltzeko. Denari eskatuko dizuedan lana da, baina galdetu nahi nizuen zuek etorri zareten azkenak zaretenez, zer moduzko ideia den.

– Guri galdetu? - esan nion nik- Zergatik?

– Ba, zuen herria eta nirea antzekoak direlako, amonarekin joan nintzen batean ikusi nuenez. Lana, hiruron artean egin dezakegu. Bihar hasiko gara lan horretan, matematikako saioaren ondoren, ondo iruditzen bazaizue.

– Bai, noski. Zuri ondo iruditzen bazaizu, guri ere bai.- erantzun nuen.

Hurrengo egunean, buru belarri hasi ginen lanean. Aneren aginduen zain gelditu ginen Mari eta biok, baina hark guk proposamenak egitea nahi zuen:

– Nola deskribatuko zenukete zuen herria?- galdetu zigun.

– Ba, ez dakigu... - erantzun genion.

– Begira, deskribapena era askotan egin daiteke: idatziz, marrazkien bidez, agian bertako gauzaren bat erakutsiz...Guk nola egin aukeratu behar dugu.

– Objektuak?- pentsatu nuen- agian, amonaren orrazia eraman dezaket.

– Zuek proposatzea nahiko nuke. Pentsatu zer kontatu nahi duzuen: herrian zer leku dauden, zeren falta sentitzen duzuen, agian, ala zer egiten zenuten han...

– Ba, herria honekin konparatuz gero, txikia da. 200 bat biztalez bizi ginen han, baina azken urteetan geroz eta gehiagok alde egin dugu handik...- esan zuen Marik.

– Oso ondo, Mari. Hori da! Zuk zer gehiago esango zenuke, Lami?- galdetu zidan.

– Ba, errekatxo bat dagoela. Udaran, herriko haur guztiak joaten ginen bainatzera. Ederki pasatzen genuen.- erantzun nion.

– Amak errekatxo argazki zahar bat ekarri zuela uste dut, eta baserri atarian aterata dagoen familiaren argazki bat ere bai.- esan zuen Marik.

Pixkanaka, hilabetean lana prestatzen aritu ginen. Anek asko lagundu zigun. Amaren argazkiak eta aitonaren txanoa eramatea pentsatu genuen. Errekatxoaren argazkia azkenean baserrian utzi zuela esan zigun amak, eta nik marraztu nuen Anek utzitako margoekin. Amonaren orrazia ere erakutsi nion Aneri. Ikaragarri gustatu zitzaion; ilea harekin orrazten utziko al nion galdetu zidan:

– Bai noski!- erantzun nion pozaren pozez.

Aurkezpenak egiteko eguna iritsi zen. Anek guk bakarrik egiteko esan zigun. prestatuta izan arren, urduri geunden. Aurkezpen bat egiten genuen lehenengo aldia zen. Anek asko lagundu zigun. Idatzi ere egin genuen, ondo, hark esan zuenez.

Ikaskideek primeran aurkeztu zituzten lanak: batzuek, aitaren lanari buruz hitz egin zuten; beste batzuek animaliei buruz; beste batzuek gustuko jolasak aurkeztu zituzten. Gu azkenak izan ginen. Pixagurak akabatzen nengoen, eta aurkezpenean alde egiterik nahi ez nuenez, Aneri komunera joateko baimena eskatu nion.

Oholtza gainean jarri ginen Mari eta biok, besteak aurretik egin zuten bezala. Beldur nintzen ahotsa ez ote zitzaidan aterako. Adostu genuen bezala, Mari hasi zen herria eta gure baserria deskribatzen, nik familiaren argazkia eta aitaren txapela denei erakusten nien bitartean.

Bukatzeke, errekatxoaren marrazkia erakutsi nien denei, eta azaldu nien hori zela herrian nire lekurik gustukoena. Hara bueltatuko banintz, esan nien hankak bustitzen nituen bitartean, amonaren orraziarekin ilea orraztuko nukeela. Bukatzean, amonak erakutsitako kanta bat kantatu genien Marik eta biok:

Erreka Lami da nire izena
txuri eta orlegi maite ditut.
Libre eta pozik bizi nahi dut.
Errekan aurkituko nauzu.
Errekan aurkituko nauzu.

Txalo- zaparrada ederra jaso genuen. Harrituta gelditu ginen Mari eta biok. Bukatutakoan, Anek horrela esan zigun:

– Zeinen pozik nagoen zuen lanak ikusita. Primeran egin duzue denok. Manu, zure txakurra ezagutzeko gogoia jarri zait. Ekarriko al duzu egunen batean gelara?

– Bai, horixe! Esan dizuedan bezala, zaharra da, baina gustura ekarriko dut.

– Lami, Mari, zuekin errekatxora joateko gogoia piztu zait. Hemen ez dago errekatxorik, baina bihar, iluntzean elkartzen zareten iturrira joan gaitezke zure orrazia probatzera. Zer iruditzen zaizue?

– Primeran!- esan genuen denok txaloka.

– Eta orain, zergatik ez gara Aitorrek aurkeztu digun jolasen batean ibiltzen?- galdetu zigun.

– Oso ondo!- erantzun genuen denok.

Gela hartan, ilusioa arnastu genuen egun haietan. Pozik geunden, taldea ginen, eta denok garrantzitsuak ginela sentitu genuen.

Eta loreak gelara eramaten hasi ginen. Handik aurrera, loreak ikusi orduko gogoratzen nintzen jadanik inoiz ahaztuko ez dudan izenarekin: Ane.

EKI ETA ILARGI

Eki eta Ilargi oso desberdinak ziren. Biak bizi ziren leku berean, baina haurrak zirenean ez zuten elkar ezagutzen.

Ekiri udara gustatzen zitzaion, argia, beroa. Eguzki-lorea zen bere lorerik gustukoena. Esmatzen zenean, indartsu sentitzen zen, energiiaz betea. Eguna aurrera zihoan heinean, nekatzen joaten zen. Gauean goiz sartzen zen ohera; deskantsua behar izaten zuen.

Ilargiri, ordea, negua gustatzen zitzaion gehien, eta horrekin batera gaua. Ohetik jaikitzerako, arratsaldea izaten zen; goizean lo egoten zen. Eguna aurrera joan ahala, geroz eta energia gehiago izaten zuen. Iluntzean, erabat esnatuta sentitzen zen, eta, gauean, animaliak lo zeudenean, ontzak bezala, esna- esna egoten zen. Ontziñe izeneko ontza zen haren lagunik onena.

Leku berean bizi ziren, Ortzi izeneko herrian, baina haurrak zirenean, ez zuten elkar ezagutzen, zaila izaten baitzen inon topo egitea. Bata lo zegoenean, bestea esna-esna egoten zen, eta alderantziz.

Udarako zen egun batean, Eki hondartzara joan zen. Goizean ez zen ia jenderik egoten eta hori izaten zen berarentzat momenturik gustukoena; lasai pasea zezakeen, hondarrarekin hanketan masajea hartzen zuen bitartean. Zeinen ederki sentitzen zen!

Eki, bitartean, goizean, goxo- goxo lo gelditu zen. Aurreko gauean ontzarekin parrandatxoa egin zuen; basoan ibili ziren ezkutaketan jolasten.

Egun hartan, aldiz, nahiz eta udara izan, eguerdi aldera lainoa sartu, eta euria egiten hasi zuen. Ze pena!- pentsatu zuen Ekik. Etxera joan beharko dut.

Eki bere gauzak jasotzen hasi zen etxera joateko. Ordurako, Ilargi trumoiaren hotsarekin esnatuta zegoen.

– Zer zarata da hori?- esan zuen.

Trumoiia zela konturatu zen; erabat esnatu zen. Ez zuen berriro lorik hartuko, ziur zegoen. Ontza ondoan zuen. Antza, hura ez zen konturatu ere egin zaratarekin. Ilargi isil- isilik atera zen etxetik buelta bat ematera. Aspaldiko partez hondartzara joatea pentsatu zuen.

Iritsi zenean, jenderik ez egotea eskertu zuen; paseo bat emango zuen.

Halako batean, inoiz ikusi ez zuen bezalako emakumea ikusi zuen; ederra zen, argiz betea. Zein ote zen? Harekin hitz egitera hurbildu zen:

– Kaixo! Ez zaitut inoiz hemen ikusi... Nola duzu izena?

Eki gauzak jasotzen bukatzen ari zen mutil hura azaldu zenean:

– Kaixo! Ni Eki naiz. Hemen bizi naiz, Ortzin.- esan zion Ekik. “Zeinen argi berezia zuen mutilak.... Eta ze begiak! Zein zen mutil eder hura?” - pentsatu zuen

– Ni Ilargi naiz eta ni ere Ortzin bizi naiz. Arraroa da inoiz ez ikusi izana, ez zaizu iruditzen?- esan zion Ilargik.

– Ba, bai....- erantzun zion Ekik erabat liluratuta- Gauzak jasotzen ari nintzen etxera joateko. Tamalez, euria hasi du....

– Ba ni oraintxe etorri naiz euria dagoela ikusita. Ikaragarri gustatzen zait euria dagoenean hondartzara etortzea.- erantzun zion Ilargik- Nahi baduzu, paseo bat eman dezakegu.

– Paseoa euritan? Ez dut inoiz horrelakorik egin...- esan zion Ekik.

– Benetan? Orain da eta momenturik onena hondartzan egoteko; jenderik ez dago, lasai- lasai egoten da.- esan zion harrituta Ilargik.

– Bai, niri ere lasaitasuna gustatzen zait. Horregatik etortzen naiz goizeko lehen orduan, baina euria ez zait gustatzen.- esan zion Ekik.

– Zergatik ez duzu probatzen?- proposatu zion Ilargik- Ederra da! Goazen!

Ekiri hasieran ez zitzaion ideia gehiegi gustatu, baina mutil hura gehiago ezagutu nahi zuen. Zerbait berria egiteak ere erakartzen zuen.

– Ados!- esan zion Ekik.

Arratsalde bikaina pasa zuten biak, euritan dantzan.

Egun hartatik aurrera egunero egoten hasi ziren. Ezberdinak izan arren, bata bestearentzat eginak zeudela sentitzen zuten.

Ilargiri esker, Ekik euria zer den deskubritu zuen eta, Ekiri esker, Ilargik goizeko lehen orduko momentua deskubritu zuen. Maiteminduta zeuden, eta biek egiten zuten ahalegina, nekatuta egon arren, elkarrekin egoteko.

Urteak pasa zituzten elkarrekin. Jada, ez ziren hasierako neska eta mutila. Haur bat izan zuten: Ilazki.

Ilazki ederra zen, sentzibilitate handikoa. Eguna eta gaua zituen gustuko. Aita eta amarekin planak egiten disfrutatzen zuen. Batzuetan gauean, ezkutaketan ibiltzen ziren, baina ez oso berandu arte, ama nekatu egiten zelako. Gauean jolasten ibiltzen ez ziren egunetan, goizean esnatzen ziren hondartzara joateko. Berari berdin zitzaion udara ala negua izan; hotza eta beroa zituen gustuko. Eguraldi guztiak gozatzen zituen.

Bazen, halere, gauzatxo bat Ilazki kezkatzen zuena. Azkenaldian, bere gurasoak oso nekatuta sumatzen zituen. Geroz eta gehiago kostatzen zitzaion elkarrekin egotea. Ez zuten jadanik lehen bezala ondo pasatzen elkarrekin. Ez zen ausartzen ezer galdetzen edo esaten, baina gauzak aldatzen ari ziren....

Egun batean, Ekik eta Ilargik berarekin hitz egin nahi zutela esan zioten Ilazkiri:

– Ilazki, maitia. Amak eta biok daukagun egoera hobetzarren, erabaki garrantzitsu bat hartu dugu.- esan zuen aitak.

Gorputzean ikaragarritzko hotza sartu zitzaion. Zein ote zen erabakia? Eta hobetu behar zuen egoera? Zeri buruz ari ziren? Nabaria zen gurasoak urduri zeudela, eta horren ondorioz, baita bera ere.

– Zein egoera? Eta zein erabaki da hori?- galdetu zien Ilazkik.

– Ba aitari eta niri asko kostatzen zaigu elkarrekin bizitzen jarraitzea. Niri beroa gustatzen zait, eta aitari hotza. Horretaz gain, iritzi desberdinak ditugu guretzat garrantzitsuak diren gauza askoren inguruan.- erantzun zion amak.

Aitari malkoa erori zitzaion; ama ere oso hunkituta zegoen. Ilazkik ez zekien haserre edo triste edo nola zegoen... Ez zuen gehiago entzun nahi eta, ateari kolpe handia emanda, etxetik korrika alde egin zuen.

Eki eta Ilargi triste zeuden. Aurreikusia zuten Ilazkiri asko kostatuko zitzaiola erabakia onartzea, baina argi zuten pauso hori eman beharrekoa zela. Ulertzen zuten Ilazkiren erreakzioa...

Egun batzuk pasa ziren, baita hilabete pare bat ere, eta erabakia hartuta izan arren, Ekiri eta Ilargiri kostatu egiten zitzaien nola antolatu behar zuten erabakitzea kostatzen zitzaien.

Ilazkik, bitartean, azkenean gauzak konponduko zirela pentsatu nahi izan zuen eta, ohiko moduan, bizi "normala" egiten jarraitzen saiatu zen.

Halere, gurasoak geroz eta okerrago zeudela ikusten zuen. Elkarri gaizki hitz egiten zioten, hitz egiten zutenean behintzat; isiluneak geroz eta luzeagoak ziren. Hotza sentitzen zuen etxera sartzean, baina ez berari gustatzen zitzaion hotza bezalakoa: hezurak hozten zizkion hotza zen hura.

– Joango gara hondartzara paseo bat ematera?- galdetu zien behin.

– Ni nekatuta nago, ez daukat joateko gogorik.- erantzun zion amak.

– Nik ere ez daukat gogorik, bero handia dago eta nahiago dut etxean gelditzea.- erantzun zion aitak.

Ilazki gero eta tristeago zegoen. Denbora pasa ahala, haserretu ere egin zen. "Egoera", gurasoek esan zioten bezala, geroz eta okerragoa zen.

– Nahikoa da!- esan zien haserre.- Zergatik ezin dugu lehen bezala bizi?

Ilargi eta Eki zer erantzun ez zekitelako gelditu ziren. Orduan, aitak etxetik joango zela esan zuen:

– Denontzat hobea izango delakoan nago. Etxean egotea geroz eta zailagoa da denontzat. Baina, Ilazki, nik asko maite zaitut eta zurekin egoten jarraituko dut.

Ilazkik ez zuen ondoegi ulertu aitak esandakoa. Zer esan nahi zuen etxetik joango zela? Eta nola jarraituko zuen berarekin egoten etxean biziko ez bazen?

Aita etxetik joatean hutsune handia nabaritu zuen Ilazkik. Ama triste ikusten zuen, eta ikusten zuen aita, baina ez zen dagoeneko etxean bizi.

Aitak eta amak egoera konpontzeko laguntza eskatu zioten Amalurrari. Galduta zeuden. Biak maite zuten Ilazki, baina elkarren arteko haserrean galtzen ziren askotan.

Egun batean, Ekik, alde batetik, eta Ilargik, bestetik, Ilazkirekin hitz egin zuten:

– Askok maite zaitut, Ilazki. - esan zion Ekik.

– Badakit, ama.- erantzun zion.

– Zaila egiten zait esan nahi dizudan guztia adieraztea. Egoera hau niretzat oso zaila da.- esan zion Ekik.

– Bai, baina ez al duzu, ba, aita gehiago maiteko?- galdetu zion Ilazkik.

– Zure aita asko maitatu dut. Berari esker gauza asko ikasi ditut; euriaz gozatzen, gauean ezkutaketan jolasten... Eta garrantzitsuena da gure maitasunaren ondorioz ZU jaio zinela. Zu zara nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena, Ilazki.- esan zion.

– Baina dagoeneko ez duzu maite, ezta?- galdetu zion Ilazkik.

– Ez, berak emandakoa maite dut, baina ezin naiz berarekin bizi. Askok eztabaidatzen dugu eta hori ez da ona, ez guretzat, eta ezta zuretzat ere.

Beste egun batean, aitarekin zegoen bitartean, Ilazkik horrela galdetu zion:

– Aita, zuk ama ez al duzu maite?

– Zaila da hori erantzutea, Ilazki. Zure amarekin oso urte ederrak pasa ditut, eta berari esker goizeko beroa, eguzkia ezagutu ditut. Eta garrantzitsuena: ZU jaio zinen harreman horretatik. Zu zara niretzat pertsonarik garrantzitsuena.

Ilazkik ez zuen ulertzen bera bazen pertsonarik garrantzitsuena, zergatik ez zuten elkarrekin egoteko ahalegina egiten.

Denbora pasa ahala, pixkanaka, gurasoak Amalurraren laguntzarekin, erabakiak hartzen hasi ziren: Ilazkik aste bat aitarekin eta bestea amarekin pasa behar zuten. Hasieran, antolatzeke modu hori ez zitzaion eroso egin familiako inori.

Pixkanaka, Ilazkik ulertu egin zuen aurreko elkarrizketetan aitak eta amak esan ziotena. Ama eta aita lasaiago ikusten zituen, eta berarentzat politikak eta garrantzitsuak ziren momentuak konpartitzen jarraitu zuen aita eta amarekin: aitarekin zegoenean, gauaz gozatzen zuen, ontzarekin jolasten ziren; eta amarekin zegoenean, egunaz gozatzen zuen, tximeleekin jolasten ziren.

Azkenean, nahiz eta mina ez erabat joan, lasaiago bizitzen ikasi zuen. Gurasoak lasaiago ikusten zituen, haien arteko tentsioak baretzen joan ziren. Ilazkik edozein zalantza edo kezka zuenean, kezka motaren arabera, aitarengana edo amarengana jotzen ikasi zuen: nola sentitzen zen adierazten ikasi zuen.

AKERBELTZ

Bazen nire herrian ospe handiko gizon bat. Ondo hitz egiten zuen, eta, batez ere, bazekien herriko jendearekin nola hitz egin berera erakartzeko. Herriko buruzagia zen. Ziur aski, horregatik ere, oso estimatua zen herritar askorentzat. Talde horretan zegoen ama. Hark esaten zuena oso baliagarria egiten zitzaion, eta antolatzen zituen errituetera joateko esan zidan urte askotan. Ni, interesik handirik gabe, joaten nintzen. Lagun batzuk ere joaten ziren, eta ondo pasatzen genuen.

Gizonak Akerbeltz izena zuen. Geroago konturatuko nintzen, bere izenak zioen bezala, bazuela gutxik ikusten zuten alde beltza, iluna.

Haurrak zituen gustuko, eta horregatik antolatzen zituen erritu- egun bereziak guretzat. Mari Domingi ere han izaten zen egun horietan. Mari Domingi goxoa zen; oso ondo kantatzen zuen. Harekin gustura egoten ginen haur guztiok.

Egun batean, 11 urte nituenean, etxean aita eta amarekin nengoela, amak esan zidan herriko haurrak egun batzuk Akerbeltzekin pasako genituela basoan. Han ederki ibiliko ginela jolasean esan zidaten gurasoek. Gainera, inguruko herrietako beste haur batzuk ere joango ziren.

Iritsi zen basora joateko eguna, eta han abiatu ginen lagunak eta ni Akerbeltzekin. Mari Domingi ere gurekin etorri zen.

Lehenengo egunetik sumatu nuen zerbait arraroa, barruak nahasten zidan zerbait zegoela Akerbeltzengan. Hitz egiten zigunean, ez zigun begietara begiratzen, eta tarteka mehatxuak ere botatzen zizkigun:

– Hemen jator ibili behar duzue. Horrela ez bada, ikusiko duzue etxera bueltatzean. Gaizki portatu zaretela esango diet zuen gurasoei eta zigortu egingo zaituztete!

Denbora gehiena Mari Domingirekin pasatzen genuenez, hasieran ez ginen gehiegi kezkatu hitz horiek entzutean eta ederki ibili ginen jolasean eta Mari Domingi erakutsitako kankak abesten.

Basoan bazen errekatxo bat. Egun batzuetan hara joaten ginen bainatzera. Ni nesketan zaharrenetakoa nintzen, eta dagoeneko, nahiz eta ni ez izan oso kontzientea, titi koxkorrak ateratzen hasiak ziren, eta gorputza aldatzen, emakumetzen, geroago entzun nuen bezala.

Errekatxora joaten ginenean, Akerbeltz gurekin etortzen zen. Han goxo ibiltzen zen gurekin, uretan sartzen zen jolastera. Batez ere, neskekin ibiltzea zuen gustuko.

Errekan geunden egun batean, niri hurbildu zitzaidan, eta konturatzerako haren esku zikinak nire titietan nituen. Begiak gorriak jarri zitzaizkion. Hotzikara izugarria sentitu nuen, lagunak lasai jolasten jarraitzen zuten bitartean. Esku haiek ipur masailtara jaitsi zituen, orduan:

– Kaixo, txiki....- esan zuen begiak gorri- gorri zituela- Ederra da errekan ibiltzea, ezta, maitia?

Nik zer esan ez nekiela gelditu nintzen. Bero zegoen, baina nik hotza sentitzen nuen. Ez nekien zergatik, baina ez nuen gustuko bere eskuak nire gorputzean sentitzea. Ahal nuen moduan, bere eskuetatik alde egitea lortu nuen. Ondoren, uretatik atera eta hantxe egon nintzen lagunekin, erabat mutu.

– Ondo zaude?- galdetu zidan Amaiak.

– Bai, lasai. Tripako min pixka bat jarri zait. Hori da dena- erantzun nion.

Egun hartan, afaltzen ari ginenean, Akerbeltzen eskuak sumatu nituen nire lepoan. Ez dakit nondik atera nuen indarra, baina bakean uzteko erantzun nion, denen aurrean:

– Utzi bakean!- esan nion ozenki nire buruarekin erabat harrituta. Esan eta segituan damutu nintzen hori esan izanaz.

– Lotsagabe halakoa! Bururatzea ere niri horrela hitz egitea!- esan zidan oihuka- Ikusiko duzu etxera bueltatzean, zure amari esaten diodanean nola erantzun didazun!...

Beldurtuta nengoen. Ez zitzaidan gustatzen inon nabarmentzea, eta gainera, Akerbeltzek amarekin hitz egin ondoren, zigortuta egon beharko nuen. Gaizki sentitu nintzen era txarrean hitz egin niolako.

Egunak pasa ahala, errekarra joaten ginen aldiro ikusten nituen Akerbeltzen begi gorriak. Uretan sartu orduko, niregana inguratzen zen nire gorputza ukitzera. Hura sartu aurretik, uretara zetorrela konturatzen nintzenean, uretatik ateratzen ikasi nuen. Horrelakoetan zikina sentitzen nintzen. Afaltzeko ordua ere ez zen izaten xamurragoa. Edozein momentu aprobetxatzen zuen mehatxuka hasteko:

– Haur gaiztoa zara!- esaten zidan- Ikusiko duzu etxera itzultzen garenean!

Isilik gelditzen nintzen. Mari Domingi zen nire atsekabeaz ohartzen zen bakarra. Gauean, nire negarrak entzuten zituen, eta goxo goxo inguratzen zitzaidan:

– Akerbeltz ez da zuzen jokatzeko ari zurekin, baina horrelakoa dela ulertu behar duzu. Etxera bueltatzean, dena ahaztuko zaizu - esaten zidan.

Baina ez zen horrela izan. Ez nintzen ahaztu...

Egunak, hilabeteak, urteak pasa ziren. Ez nion kontatu inori egun haietan nola sentitu nintzen, Errituetara joateari utzi nion, baina Akerbeltz kalean ikusten nuen bakoitzean errekatxo hartan sentitu nuen adinako hotzikara sentitu nuen urte askoan: izoztuta gelditzen nintzen; errudun sentitzen nintzen; begirada jaisten nuen, lurrera begiratu, haren begiekin topo ez egiteko.

Egun batean, 25 urte inguru nituenean, ez dakit zergatik, zerbait aldatu zen:

Goizean, izerditan esnatu nintzen. Ohea blai eginda zegoen, baina erabat indarberrituta sentitzen nintzen. Zerbait aldatu zen nire barnean.

Arratsaldean kalera atera orduko, han ikusi nuen Akerbeltz. Norabide berean ibiltzen jarraitu ezkerreko, harekin topo egingo nuen. Orduan ohikoa ez zen zerbait egin nuen: begietara begiratu nion. Haren begietan koldarkeria ikusi nuen. Hura izan zen momentu hartan begirada jaitsi zuena. Indartsu sentitu nintzen; zegoeneko ez nintzen errudun sentitu.

Hau da begietara begiratzen ikasi nueneko historia. Batzuen begietan koldarkeria ikusten jarraitu nuen arren, beste askotan maitasuna, adiskidetasuna eta zoriona ere ikusteko gai izan nintzen. Eta nire begietara begiratzen ere ikasi nuen, baina hori beste istorio bat da...